

2018 MAI. 02
MAY.2018 API. 30
ABR.

SARRERA	IRTEERA
Zk. —	Zk. 465532

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta
Etxebizitzako sailburua

SARRERA	IRTEERA
Zk. 352574	Zk.

2018ko otsailaren 20an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde
Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentuari
ALEGAZIOAK

2018ko otsailaren 20ko Aginduaren bidez hasierako onarpena emandako EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentuaren aurrekoa 2016ko azaroko EAEko LAGen Berrikuspenaren Aurrerapena da.

Bere garaian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako ekarpenak eta, horietatik abiatuz, bi Sailen arteko elkarlanaren emaitza izan zen 2016ko azaroko dokumentu horretan jasotako hizkuntza gaiaren trataera.

Orain proposatzen den dokumentua 2016koarekin alderatuz ikusten dugu atzerapausoak ematen direla eta, ez dokumentuan bertan, ez gainontzekoetan ez dagoela arrazoitua aldaketa horien zergatia; aipamenik ere ez da egiten.

Hona hemen aldaketa / atzerapauso horietako adibideak:

- a) “Lurralde Ereduaren Oinarriak eta Printzipio Gidariak” alorreko “Lurralde Inklusiboa” atalean euskarari buruzko aipamenak desagertu dira.

2016ko dokumentuak honela dio:

“Indarreko LAGak onartu zirenetik badira zenbait alderdi, 1997an berretsitako lurralde-ereduan zuzenean edo zeharka aipatzen baziren ere, gaur egun tratamendu espezifikoa eta arreta berezia eskatzen dutenak eta, gainera, alderdi horiek guztiek eragina dute lurralde sozial orekatu baten oinarrian. Besteak beste, genero-ikuspegiarekin, ingurune osasuntsuekin, euskararen erabilera eta presentzia aintzatestearekin, hondatuen dauden zonetan arreta berezia eskaintzen duen hiri-berroneratzearekin(...)”

“Gure lurraldeko hizkuntza ofizialkideen hizkuntza-ikuspegiari dagokionez, lurraldearen ikuspegitik euskararen presentziaren gaineko tratamendua alderdi berritzailea da, ikergai bilakatzen ari dena. LAGen berrikuspen-prozesu horretan egokitzen jotzen da lurralde antolamenduak eta hiri-



antolamenduak euskararen erabilerarekin eta lurralde-arloko proposamenak egiteko aukerarekin zer-nolako harremana duen aztertzea.

- b) “Zeharkako Gaiak” alorrean “Euskara”ri buruzko ataleko testuaren zati garrantzitsua ezabatu egin da.

Honela dio 2016ko dokumentuan oraingoan agertzen ez den lerroaldeak:

“Lurraldearen antolamenduak eta hura hirigintza-alorrera eramateko ekimenak euskararen benetako koofizialtasuna zaindu behar dute gure lurraldean, kasuan kasu egokiak diren neurriak ezarriz.”

- c) “Zeharkako Gaiak” alorrean “Euskara”ri buruzko ataleko “Helburu”etako lehena desagertu da.

Honela dio 2016ko dokumentuan oraingoan agertzen ez den helburuak

“Euskara-alorrean, honako hauek dira lurralde-estrategiaren berrikuspenaren helburuak:

1. Lurraldean euskararen benetako koofizialtasun erreala sustatzea.”

- d) “Euskararen arloko gidalerroak” jasotzerakoan, 33.2 artikuluan, “arnasguneak babestea” ezabatu da.

Honela dio 2018ko dokumentuan 33.2 artikulua:

“2. Harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasu-neko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.”

Honela diote 2016ko dokumentuan 35.2 artikulua eta, aurretik, “Euskara” aipatutako atalean:

“2. Arnasguneak babestea, harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.”

Bestalde, badaude arreta deitzen diguten beste bi kontu:

1. “Zeharkako Gaiak” alorrean “Euskara”ri buruzko atalean *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikulua* jaso arren, ez da lege honi buruzko inolako aipamenik egiten *“Lurralde Antolamenduaren Esparru Juridikoa EAEn”* atalean.

2. “Euskararen arloko gidalerroak” “**Gomendio mailako gidalerroak**” kapituluak jasotzen dira; hots, gomendio maila besterik ez zaie aitortzen.

Aipatu dugun *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7* artikulua honela dio:

“7.– Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.”

Ikus dezakegunez, ez da gomendioa, ezinbestez betebeharreko ezarpena baizik.

Halaber, herri-administrazio guztien eginbearra denez euskararen sustapena eta normalizazioa,

ESKATZEN DUT

- a) Berreskuratzea 2016ko azaroko EAEko LAGen Berrikuspenaren Aurrerapen dokumentuan hizkuntza alorrari buruz jasotakoak eta EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentuan berriro txertatzea; eta,
- b) “Euskararen arloko gidalerroak” III. kapitulutik “**Gomendio mailako gidalerroak**” II. kapitulura eramatea “*Espazioaren antolamendurako eta erabilerarako gidalerroak*”.

Adeitasunez,



~~Miren Dobarán Urrutia~~

Hizkuntza Politikarako sailburuordea